



DEIALDI ARTISTIKOAREN OINARRIAK

10º. URTEURRENA

Museoa bere urtebetetzea ospatzen ari da, 10 urte beteko ditu!

... Eta zu parte hartzera eta gozatzera gonbidatuz ospatu nahi du...

... Okasio honetarako sortutako ekintza programa zehatz baten bidez

... Urrian garatuko dira jarduerak, museoa zabaldu zen hilabetea baita hau.

Sormena bultzatu eta garaiko praktika artistikoen hausnarketa laguntzeko helburuaz, deialdi bat zabaltzen da museorako esku-hartze artistikorako proiektu zehatz bat egiteko.

Deialdi hau 20 eta 35 urte arteko artista gazteei zuzendua dago, Estatu Espainiarrean egoitza duen edozein nazionalitateko edonor. Artistak indibidualki edota kolektiboki aurkeztu daitezke, gehienez bi lan aurkeztu ahal izango dituztelarik, bakarka edo kolektiboan.


GAIA: Museum Cemento Rezolaren 10. urteurrena

Praktika artistikoa adierazpenerako, hausnarketa artistikorako eta esperimenezko egokiak diren espazioetara eramatea da ideia, 10. urteurrenerako egokia den lan zehatz baten sorkuntzaren bidez.

Deialdia edozein diziplina artistikori irekia dago, beti eta esku.-hartuko den espazioa moldatzen bada. Esku-hartzeko espazioak / zonaldeak honakoak dira:

Museoko Fatxada*. 9m luzera x 4 m altuera. Museoaren inguruak: Kanpoko lorategia eta inguruko zonaldea 5m2

* Museoko fatxadak ezin du zuzeneko esku-hartzea jasan, eta horregatik, esku-hartzeko espazio hau aukeratuz gero, artistari euskarri exentua emango zaio.



BALORAZIOA:

Balorazio prozesuan eta proiektuaren aukeraketan ondorengo irizpideak betetzea positiboki baloratuko da:

Kalitate artistikoa eta proposamenaren berrikuntza. Esku hartzearen zorrotasuna proiektuaren diskurtsoaren koherentzia. Aurkeztutako proiektuaren aurrekontuaren

BALDINTZAK:

Aukeratutako obraren erakusketa publikoaren iraupena Museoaren irizpideak baldintzatuta egongo da.

Esku-hartzeak zehatza izan behar du aukeratutako espazioarentzat, lan berriak iozan behar dute beraz, deialdian bertan proposatutako gaia lantzen duena.

Aukeratutako lanaren egileak, FYM-i utziko dio bere obra, inolako mugarik gabe, erreproduziorako eskubideen, distribuziorako, komunikazio publikorako eta eraldaketarako esku inolako mugarik gabe., Jabetza Intelektualaren Legeak dionetz 1/1996 ren apirilaren 12anl, obraren jabetzari eratorria..

Garrantzia emango zaio prozesu sortzaileari, hau dokumentatuz (argazkilaritza) Museoaren web-ean edota beste euskarriren batean erakutsi ahal izan dadin

Obraren gauzatzerako hitzartutako denboran, irailaren 13tik urriaren 7ra bitartean, artistari lan egiteko espazio bat eskainiko zaio Donostiako Arte Garaikideko Zentroa den Artelekun. Era berean, artistak, ahal den neurrian behintzat bertako talde teknikoaren laguntza jasoko du.

Modu honetan, obra gauzatzen den denboran, 2010eko irailaren 13 tik urriaren 9ra bitartean, Museum Cemento Rezolak doako egoitza eskainiko dio artistari (La Sirena. Aterpetxea, Donostia), eta baita 810€ euro ere (30€ eguneko), dieten kontzeptuan.

Honetaz gain, Museum Cemento Rezola egingo da artistaren desplazamenduen arduradun (bizi den lekutik Donostiarainoko joan eta etorria), hasieran (irailak 13 eguna) eta amaiera (urriren 7-9 egunen artean), obraren gauzatzearen denbora.

Artistak berak jarri beharko ditu obra gauatzeko beharrezko materialak, hormigoia izan ezin. Kasu honetan material hau Cemento Rezola- FYM-ek emango du eta.

Museoak aukeratutako lanaren promoziorako publikaziorako eskubideak eta erreprodukzioak gordetzen ditu, eta deialdi honetan aurkeztutako dokumentuak bere artxiboan gordeko ditu.

Honela, obra guzti hauek erabiliak izan ahalko dira erakusketa birtual edota errealetan eta artistekin aurrez hitzartutako publikazioetan eta beti artistaren autoretza azpimarratuz.



Deialdiaren erresoluzioa:

Deialdi honetara zuzendutako gehienezko zenbatekoa 5000 eurokoa da, eta ondoren azaltzen den bezala banatuko da:

Ordainsari kontzeptu gisa artistak 1.500 euro jasoko ditu, proiektua bakarkakoa edota kolektiboa izanda ere. Zenbatekoa banku transferentzia bidez egingo da eta legalki ezarritako atxikitze fiskala egingo zaio.

Aukeratutako obraren gauzatze gastuen kontzeptuan 3.500euroko zenbatekoa bideratuko da.

(Kopuru hau gainditzen duten gastuak artistaren esku egongo dira)

Proiektuak aurkezteko epea:

2010eko ekainaren 21 (egun hau barne), 14.00etan

Deialdi honetako emaitza pertsonalki jakinaraziko zaie parte-hartzaile guztiei asko jota hilabete bateko epean, uztailaren 21a. Epaimahaia: Ana Salaverria. Ikus Arte Zerbitzu Zuzendaria–Arteleku. Gipuzkoako Foru Aldundia. Álvaro Ledesma / artista bisuala. Alicia Chillida / Komisario independentea. Amaia Llorente / Antonio Nolasco / Museum Cemento Rezola. Epaimahaiaren erabakia aldaezina izango da eta gehiengoz hartuko da erabakiale.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

Izen-emate orria betea (deialdiko oinarriekin batera aurkituko duzue) Proiektuaren egile edo egileen Curriculum Vitae-a. Proiektuaren egile edo egileen NANaren fotokopia. Proiektuaren deskribapen kontzeptuala, zirriborro original batekin batera,

Kolore eta guzti, A3 edo A1 tamainan. Zirriborroak obraren izenburua eraman beharko du. Erantsitako irudiek 72dpi-ko ebazpena minimo bat izan beharko dute. Erabili beharreko materialen deskribapen zehatza eta proiektuaren tekniken beharrak. Obraren gauzatzearen kostuen aurrekontu zehatza.



Lege Organikoarekin bat eginez 15/1999, Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari dagokionez (LOPD), 2007ko abenduaren 21eko araudiaren arabera, Deialdi Artistiko honetako parte-hartzaileek emandako datuak, Sociedad Financiera y Minera S.A arduraduna den fitxategi batean jasoko dira, soilik Deialdi Artistikoari ekiteko erabiliak izanik.

Izaera pertsonaleko datuak babes maila egokiarekin tratatuak izango dira, euren aldaketa, galera, tratamendu edota baimendu gabeko hirugarren pertsonen sarbidea ekiditeko.

Datuen titularrek euren datuen sarbide eskubideak bete ahalko dituzte, zuzenketa, deuseztapena eta indarrean dagoen araudiaren kontra egin.

Parte hartzea eta entrega lekua:

Parte hartzeko korreo honetan erantsita aurkituko duzun eskabide orria inprimatu eta bete eta eskatutako gainontzeko dokumentazioarekin bidali ezazu Museoko helbidera. Eskabidea Museoan bertan era jaso daiteke.

MUSEUM CEMENTO REZOLA

Av. De Añorga, 36. CP 20018 Donostia San Sebastián
TI. 943 364 192

Proiektuen eta dokumentazioaren bidalketa postaz egingo da (bidalketa gastuak eskatzailearen esku), esota bestela zuzenean Museoan aurkeztu ahalko da (Av. De Añorga, 36. CP 20018 Donostia San Sebastián)

Erantsia:

Museum Cemento Rezolako eta inguruetako argazkiak. Esku-hartze artistikora bideratutako espazioak.



